

**Bilbo**  
**Zaharra**  
EUSKALTEGIA



## EUSKERA PLANAK ENPRESETAN

Berbalan

# EUSKARA PLANAK ENPRESETAN - HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

## Gure enpresaren helburua

- Lan munduan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko Bilbo Handiko enpresetan euskara planak diseinatu eta aurrera eramaten ditugu.
- Horretarako Bilbo Zaharrak esperientzia handiko profesionalak eta baliabide teknikorik aurreratuenak eskainiko dizkizugu.
- Halaber, beharrezkoak diren gestio burokratiko guztiak egingo ditugu erakundeek eskaintako diru-laguntzak lortze aldera.

## Zer eskaintzen du euskara plan batek?

- 1. Euskararen presentzia eta erabilera handitzen lagunduko dizu modu erraz eta eraginkorrean.
- 2. Gizartean txertatutako enpresa berritzailearen irudi moderno eta dinamikoagoa emango dizu.
- 3. Bezero eta hornitzaileekiko harremanak hobetuko ditu.
- 4. Bezero elebidunak erakarriko ditu.
- 5. Langileak motibatzen lagunduko dizu.
- 6. Kalitatean inbertsioa izango da etorkizunean

## Zer eskaintzen dizu gure aholkularitza zerbitzuak?

1. Hasierako egoeraren diagnosia, aplikazio informatikoak erabiliz, eta elkarrizketa pertsonalizatuaren bidez.
2. Zure enpresak euskara-planarekin aurrera egiteko konpromisoa hartuta, diseinua egingo dugu.
3. Behar dituzun bitarteko guztiak zure esku jarriko ditugu.
  - itzulpen zerbitzua
  - formazio-ikastaroak ( aurrez aurre, autoikaskuntza,..)
  - trebakuntza-ikastaroak (enpresan bertan, ordenagailuen bidez,...)
  - hiztegi orokorrak eta teknikoak
  - laguntza teknikorako tresnak: banku terminologia (Euskalterm), zuzentzaile ortografikoa (Xuxen), agiri-ereduen banku telematikoa, ofimatika eta berariazko programa informatikoak euskaraz lan egiteko.
4. Finantziarako tramite burokratiko guztiak egiten lagunduko dizugu.( diru laguntzak eskatzeko agiriak bete,..)
5. Egindako guztiaren jarraipena eta koordinatze-lana egingo dugu

## Nola egiten dugu lan? 1,2,3, ...

- Bezeroarekiko lehenengo hartu-emanak.
- Lehenengo bilera enpresaren arduradun/nagusiarekin.
- Beharrezkoak diren elkarrizketak eta behaketa egin..
- Aplikazio informatikoa bete.

## Nola egiten dugu lan? 2,3, ...

2. Diagnostikoaren eta gure proposamenaren aurkezpena.

- Bigarren bilera batean diagnostikoaren aurkezpena egingo genuke
- Behin enpresak gurekin aurrera egiteko konpromisoa hartuta, gure proposamena egingo genuke.

## Nola egiten dugu lan? 3, ...

### 3. Euskara Plana disenatuko dugu.

#### 3.1. Urte Anitzeko Euskara Plana .( 1.eranskina EME koadroa)

- Gutxieneko iraupena: 3 urte.
- Lehenengo mailako 2 ardatz garatu beharko ditu gutxienez.
- Enpresak helburu nagusia definitu behar du.
- Hiru ardatzetatik zeintzuk landuko dituen definitu behar du.
- Errotze edo instituzionalizatzeko maila adierazi behar du.
- Zein diren lehendik landu/burutuko diren osagai/jarduerak jasoko du.
- Zein hizkuntza-trataera emango dion eginkizun bakoitzari
- Eginkizun horiek non eta nork egingo dituen zehaztuko du.

## Nola egiten dugu lan? 3, ...

### 3.2. Urtebeteko Kudeaketa Plana.

Urte anitzeko planaren arabera urte horretan landuko diren jarduera/osagaiak zerrendatu eta zehaztuko ditugu, baita epeak eta arduradunak ere.

### 3.3. Jarraipena eta aldian-aldiko Ebaluazioa.

## EUSKERA PLANAK ENPRESETAN

### Diru laguntzak

- ❖ Euskara planak kofinantziateko, batez ere, urtero Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak eta agiri guztiak bideratuko dizkizugu. Era berean, aldundiek eta udalek eskainitako laguntzen berri emango dizuegu.



# Berbalan

Bilbo  
Zaharra  
EUSKALTEGIA

Posta kalea, 8 48005. Bilbo.  
Telefona: 944158292  
[euskaltegia@bilbozaharra.eus](mailto:euskaltegia@bilbozaharra.eus)  
[www.bilbozaharra.eus](http://www.bilbozaharra.eus)